

# GIPUZKOA

## Urteko Memoria

### 2015



Pertsonengandik gero eta hurbilago



**Gurutze Gorria**

## © Gipuzkoako Gurutze Gorria

Dokumentu honetako edozein atal aipatua, kopia, beste hizkuntza batzuetara itzulia edo egokitua izan daiteke tokiko premiei erantzuteko Gipuzkoako Gurutze Gorriaren baimenik gabe, betiere iturria argi aipatzen bada.

Argitaratzailea:  
Gipuzkoako Gurutze Gorria  
Ategorrieta Etorbidea, 10  
20013 Donostia

Harremanetarako emaila:  
gipuzkoa@cruzroja.es



*Argitalpen honetarako Cyclus Print paper % 100  
birziklatua erabili da, FSC® Recycled ziurtagiria du  
eta kolore zuri naturala dauka.*



**José María de Elorduy**  
Gipuzkoako delegatu berezia



Adiskide agurgarriak:

Aurten ere zuekin partekatu nahi ditugu 2015. urtean egin dugun ekintza humanitarioaren emaitzak. Memoria honetan Gipuzkoako Gurutze Gorria osatzen dugun pertsona guztiok egin dugun lanaren laburpena, jarduera eta ahallegina biltzen ditugu. Era berean, gardentasunez jokatu nahi dugu eta kontuak eman nahi ditugu, bi ekintza horiek ezinbestekoak direlako gure erakundearekin fidatzen diren pertsona guztiei Gurutze Gorria zer egiten ari den azaltzeko.

2015. urtean, Gipuzkoako Gurutze Gorriak 54.301 pertsona artatu ditu bere esku-hartze eremu guztietan. Eremu horiek honako hauek dira: Esku-hartze Sozialeko programak, Enplegua, Adinekoak edo Haurrak, baita Osasuna, Soroospena eta Larrialdiak eta Nazioarteko Lankidetzeta edo ingurumena ere.

Nabarmendu behar da azken urte honetan pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka borroka egiteko proiektuei eman diegula lehentasuna, jakina. Muturreko kalteberatasun-egoeran dauden 10.000 pertsona ingururi eskaini diogu laguntza Gipuzkoan, iaz baino 5.198 pertsona gehiagori. Gizarte-bazterketaren arriskuan dauden pertsona eta familiei laguntzeko programa indartu egin da 2012. urteaz geroztik, urte horretan Gurutze Gorriak deialdi bat jarri zuelako abian krisiaren eraginpean dauden familiei lagundu ahal izateko; horrez gain, elikagaiak eta larrialdi sozialeko loteak banatu dira, eta energia-pobrezia pairatzen duten familiei argiaren, uraren eta gasaren hornidura ordaindu zaizkie, besteak beste.

Hori guztia egin dezakegu ia 3.000 pertsonaz osatutako boluntario talde baten laguntza ordainezinari esker, 17.000 bazkide baino gehiagoren laguntzari esker eta erakundeen, finantzatzaileen, emaileen eta Administrazio Publikoaren parte-hartzeari esker. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiet egunez egun, beren laguntzarekin eta parte-hartzearekin, lan hau ahalbidetu duten pertsona guztiei.

## IKUSPEGIA

Gurutze Gorriak, izaera boluntarioa duen eta gizartean oso errotuta dagoen erakunde humanitarioa den heinean, erantzun integralak emango dizkie pertsona kaltebetei giza garapenaren eta garapen komunitarioaren ikuspegitik, eta pertsona horien gaitasun indibidualak sendotuko ditu gizarte-testuinguruan.

## EGINKIZUNA

Estatuko eta nazioarteko eremuetan pertsona kalteberengandik gero eta hurbilago egotea, funtsean boluntarioek egingo dituzten eta parte-hartze sozial eta lurralde-presentzia handia izango duten ekintza integratuen bidez.

## GIZATASUNA • INPARTZIALTASUNA • NEUTRALTASUNA • INDEPENDENTZIA BOLUNTARIOTZA • BATASUNA • UNIBERTSALTASUNA

16 ESKUALDE/HERRI BATZAR

**Debagoiena** (943 765 576)

**Andoain** (943 594 290)

**Azkoitia** (943 853 297)

**Goierri** (943 161 516)

**Deba** (943 191 032)

**Donostia** (943 222 222 / 943 320 989)

**Eibar-Ermua** (943 176 248)

**Elgoibar** (943 743 864)

**Hondarribia** (943 641 727)

**Irun** (943 621 162)

**Lasarte** (943 103 022)


**Pasaia** (943 354 151)

**Errenteria** (943 340 204)

**Tolosa** (943 674 888)

**Urola Garaia** (943 725 364)

**Zarautz** (617 452 341)



## ZER EGITEN DUGU?

- 06** • OSASUNA
- 10** • SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK
- 14** • ITSAS SALBAMENDUA
- 16** • PREBENTZIO, SOROSPEN ETA SALBAMENDU  
ZERBITZUA GIPUZKOAKO HONDARTZETAN
- 18** • GIZARTE ESKU-HARTZEA
- 22** • ENPLEGUA
- 24** • PRESTAKUNTZA
- 28** • INGURUMENA
- 30** • GAZTEEN GURUTZE GORRIA
- 34** • NAZIOARTEKO LANKIDETZA

## NORK EGITEN DU?

- 36** • BOLUNTARIOTZA ETA LANGILEAK
- 40** • TOKIKO GARAPENA

## NOLA EGITEN DUGU?

- 42** • BALIABIDEAK
- 44** • KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

## NOLA FINANTZATZEN DA?

- 46** • FUNTSAK ESKURATZEA

## GIPUZKOAKO GURUTZE GORRIA ZIFRATAN

- 48** • KUDEAKETA EKONOMIKOA
- 52** • JARDUERA DATUAK

## FINANTZAILE ETA LAGUNTZAILEAK

## KALITATE ZIURTAGIRIAK



---

# OSASUNA

---

*Ohitura eta bizimodu osungariak sustatzea.*

...

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) honela definitzen du osasuna: gaixotasunik edo ondoezik eza ez ezik, erabateko ongizate fisikoa, mentala eta soziala. Horregatik, Gurutze Gorrian osasuna zeharkako kontzeptu bezala hartzen dugu, gure zereginaren oinarria dena eta hainbat kontzeptu fisiko, psikologiko, sozial eta ingurumen-arlokoren bitartez lantzen duguna.

prebentziotik -nahaste edo arazo baten eraginpean dauden edo haien eraginpean egoten hasi diren biztanleekin egiten diren ekintzak- eta hirugarren mailako prebentziotik bideratuta -dagoeneko arazo bat sortu denean egiten diren babes- edo laguntza-ekintzak-.

## OSASUN PLANA

---

Osasun-arlotik hainbat jarduera egiten ditugu, lehen mailako prebentziotik -arriku, jokabide edo nahaste bat ager dadin saihesteko egiten diren ekintzak-, bigarren mailako

Gurutze Gorriaren osasun-plana, bere programa, proiektu eta jarduerari esker, herritarrei osasunaren sustapenean la-

6



gungarriak izango diren oinarritzko jarraibideak ezagutarazteko helburuarekin iristen da Gipuzkoako kaleetara.

- > **ISTRIPUEN PREBENTZIOA:** istripuen prebentzioa ezaugarri garrantzitsuenetako bat da osasunaren ikuspegi oso bati ekiteko garaian. Gurutze Gorriak trafikoko, etxeko eta aisialdiko istripuak prebenitzeko jokabideak eta jardun-jarraibideak eskaintzen ditu, herritarrei oro har eta arrisku handiagoa duten kolektiboek bereziki zuzenduta.
- > **GAIXOTASUNEN PREBENTZIOA:** gaixotasun bat ager dadin saihesteko garaian kontuan izan beharreko mekanismoei buruz sentsibilizatzen dugu jendea, arrisku-faktoreak murrizteko. Informazio-kanpainen bitartez herritarrei eta arriskuan dauden kolektiboek aholku ematen diegu, gaixotasunen ondorioak arintzeko helburuarekin.
- > **OSASUNA SUSTATZEA:** "Bizitza osasuntsu eta segurua ahalbidetzeko" ildo estrategikoari jarraitzen diegu, bizitza osasuntsurako ohiturak sustatuz herritar guztien eta, bereziki, kalteberatasun-faktore gehiago dituzten kolektiboen bizi-kalitatea hobetzeko.

Horretarako, hainbat proiekturen honako jardun-ildo hauek lantzen ditugu:

## “Komunitatearen Osasun Sustatzailea eta Atari Solidarioa” proiektua

Osasun Komunitarioaren barruan, Gipuzkoako Gurutze Gorriaren “Komunitatearen Osasun Sustatzailea eta Atari Solidarioa” proiektuak osasunaren arloa lantzen du auzokoen erkidegoetan. Pertsonen trebakuntza eta arazo-konponketa auzotasun ona oinarritzat hartuz lantzen dira (pertsonen eta taldeen autonomia, parte-hartzea eta ahalduntzea sustatzea), erkidegoak “Atari solidario” gisa hartuz.

Horrek guztiak auzoaren dinamizazioa bultzatzen du eta erkidego edo komunitatearen barnean hartuta jarraitzeko funtsezko laguntza ematen du, proiektuak prestakuntza, emozioei eustea eta laguntza eskaintzen dituelako.

## “Donostia Lagunkoia” proiektua

Ekimena Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) sustatzen du, eta estatuko eta nazioarteko beste hainbat hiritan ere abian dago. Donostia herritarrentzat oro har eta adinekoentzat bereziki hiri hobe bihurtzea da helburua.

Zahartze aktibora, parte-hartzera eta bizi-kalitatara bideratutako ekintzak sustatzeko xedez, Udalak kontraste, balidazio, proposamen eta kontrolerako talde bat biltzen du, eta “Komunitatearen Osasun Sustatzailea eta Atari Solidarioa” proiektua bertan dago sartuta.

## MUNDU EGUNAK

### Osasunaren Mundu Eguna

Gurutze Gorriak Gipuzkoan Osasunaren Mundu Eguna ospatu zuen apirilaren 7an, ‘Elikagaien Kaltegabetasuna’ lelopean. Osasunaren prebentzio eta sustapenerako hainbat jarduerak egin ziren, herritarrek oro har elikagai kutsatuek dakarten mundu-osasunerako arazoari buruz sentsibilizatzeko. Era berean, elikadura osasungarria eta merkea egiteko aholkuak eskaini ziren.





Kanpaina apirilaren 6tik eta 17ra bitartean egin zen. Sare sozialen bitartez hedatu zen eta informazioa emateko hainbat stand ipini ziren Donostian, Erreterian, Lezon eta Oiarzunen.

## Lehen Laguntzen Mundu Eguna

Lehen Laguntzen Mundu Eguna zela medio, Gipuzkoako Gurutze Gorriak irailaren 12an herritarrak gai horretan gaitzeko prestakuntza- eta informazio-saio bat egin zuen Donostian.

Egun horretan lehen laguntzen doako tailerrak eta bihotza eta birrikak suspertzeko tailerrak egin ziren, eta istripuen prebentzioari eta ENE jokabideei (Erreparatu arriskuari – Neurtu arriskuak – Eutsi jarrera seguruari) eta BAS jokabideei (Babestu – Abisatu – Sorotsi) buruzko informazioa eman zen.

### KANPAINAK



Etxeko istripuen prebentzioa

**2.842** parte-hartzaile



Aisiako eta astialdiko istripuen prebentzioa

**5.011** parte-hartzaile



Sexu-transmisioko gaixotasunen prebentzioa

**1.320** parte-hartzaile

### PROIEKTUAK



Osasun Komunitarioa

**7.140** parte-hartzaile



Osasuna eta jokabide mendetasun-sortzaileak

**471** parte-hartzaile

**OSASUN PLANEAN GUZTIRA 16.784** parte-hartzaile

### OSASUNeko JARDUNAK



Osasuneko jardunak

Erabiltzaileentzako orientabide, informazio, bitartekaritza, asistentzia, laguntza eta jarraipenerako jardunak

**4.317** parte-hartzaile





# SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK

*Hondamendietarako prestakuntzaren eta larrialdietarako esku-hartzearen alorrean eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea.*

...

Gurutze Gorriak kolektibo ahulenen alde garatzen du bere jarduera, eta Sorospen eta Larrialdietako Esku-hartzearen birtartez jendeari istripu, hondamendi, larrialdi edo arrisku-egoeretan arreta eskaintzera bideratutako baliabide material eta giza baliabide guztiak kudeatzen ditu.

## LARRIALDIETAKO GARRAIO SANITARIOAREN SAREA (LGSS) \_\_\_\_\_

2015ean, abuztuaren amaieraraino, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako zerbitzu-kontratazioaren bitartez, zerbitzu hori egin zen honako leku hauetan:

Eskualde/Herri Batzarrak	LGSS
Debagoieneko batzarra	24 ordu
Elgoibarko batzarra	24 ordu
Tolosako batzarra	24 ordu
Donostiako batzarra	24 ordu
Hondarribiko batzarra	24 ordu

## LARRIALDIETAN BEREHALAKO ERANTZUNA EMATEKO TALDEAK (LBET) \_\_\_\_\_

LBETak biktimen premiei arreta emateko diseinatutako erantzun-eredu bat dira, premia horietarako beharrezkoak eta egokiak diren zereginak eginez. Beharrezkoa izango da erantzun espezializatua ematea, taldeak herritarren parte-hartzea erraztuko duen esparrua izan dadin ahaleginduz, boluntarioak direlako. Gipuzkoan 2015ean 347 boluntario zeuden LBETetan.

> **ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALEKO LBET:** Larrialdi-egoera baten eraginpean dauden biktima, senitar-teko eta/edo hurbilekoei arreta integratzaile egokia emateko prestatuta dago talde hori, eraginpekoek dituzten premia psikologiko, sozial eta sanitarioei arreta eskaintzeko xedez.

> **LURREKO BILAKETA ETA SALBAMENDURAKO LBET:** Talde horrek desagertu eta/edo galdu egin diren pertsonen bilaketa-ekintzetan laguntzen du, lurrian (naturaguneetan eta abar) miaketa-eragiketak planifikatuz eta egikaritzuz. Era berean, biktima segurtasun-baldintzetan eta salbamendurako prestatzeko beharrezkoak diren ekintzetan laguntza eskaintzen du, haren osotasun fisikoa arriskuan dagoen egoeretan.





## LARRIALDIETARAKO ERAGIKETAK\_\_\_\_\_

Larrialdi- eta/edo krisi-egoeretan dagoen jendeari laguntza emateko martxan jarritako ekintza zehatzak dira. Aginte publikoen erantzunarekin koordinatuta eta modu osagarrian egiten dira. Larrialdi-eragiketak babes zibilak ematen duen erantzun publikoaren zati izateko ahalegina egiten da.

Horren adibide Donostiako udala da, Gurutze Gorriak udalarekin akordio bat baitauka uhinaldien, euriteen, uholdeen eta/edo elurteen kasuan eta larrialdietan laguntzeko.

## PREBENTZIO-ZERBITZUAK: LURREKOAK ETA URETAKOAK\_\_\_\_\_

Jende asko bertaratzen delako edo ekitaldiaren ezaugarri bereziak direla medio arriskua sor daitekeen ekintza edo


ekitaldi batean aldez aurreko plangintza bati erantzunez Gurutze Gorriak egiten dituen antolaketa eta arreta sozio-sanitarioko jardunak dira.

Adibidez kirol-ekitaldietan, ikuskizun eta kontzertuetan, herriko eta zaindariaren jaiegunetan, eta kultura- eta gizarte-ekintzetan egiten dira.

Gurutze Gorriak estrategia integral sanitario bat definitzen du, balizko larrialdi kolektiboak nahiz kasu bakoitzean sor daitezkeen laguntza sanitario indibidualeko premiak estaltzeko prestatuta dagoena.



SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK	ARRETA EMANDAKO PERTSONAK	EGINDAKO ZERBITZUAK
<b>LBET</b>	<b>20</b>	<b>28</b>
<b>Prebentiboak</b>	<b>12.637</b>	<b>3.623</b>
Lurreko prebentiboak	2.610	1.699
Uretako prebentiboak	10.027	1.924
<b>Osasun-garraioa</b>	<b>2.143</b>	<b>2.126</b>
Estaldura sanitarioetatik eratorriak	142	143
Zerbitzu ez-urgenteak	17	17
Larrialdi sanitarioak	1.815	1.805
Trafiko-istripuak	169	161
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.800</b>	<b>5.777</b>



**14,5%**

Osasun-garraioa

Artatutako **2.143** pertsona  
Prestaturiko **2.126** zerbitzu

**85,4 %**

Prebentiboak

Artatutako **12.637** pertsona  
Prestaturiko **3.623** zerbitzu

**0,1%**

LBET

Artatutako **20** pertsona  
Prestaturiko **8** zerbitzu





---

# ITSASOKO SALBAMENDUA

---

*Gizakien bizien segurtasuna itsasoan.*

...

Gipuzkoan lau itsas base daude, non Itsasoko Salbameduko Programa gauzaten den: Zarautz-Getaria, Donostia, Pasaia eta Hondarribia. Programa horren helburua itsasoko istripuetan bizitza eta osasuna arriskuan dagoela ikusten duten pertsonen bizitza babestea da, Itsasoko Salbamedurako Estatuko Sozietatearekin (SASEMAR) lankidetzan.

Eremu horretan garatzen diren jarduera nagusiak honako hauek dira:

- Gizakien bizitzaren salbamendua.
- Kostaldean desagertutako pertsonen bilaketa eta erreskatea.

- Bizirik dauden pertsonen bilaketa-eragiketetan laguntzea.
- Kutsaduraren aurka borrokatzeko eragiketetan laguntzea.
- Arriskuan dauden ontziak atoian eramatea.

2015ean 128 esku-hartze egin ziren Gipuzkoan, eta 73 laguni eman zitzaien laguntza. Probintziako salbamedurako baseek 337 boluntario dituzte.





BATZARRA	GURUTZE GORRIA	EUSKO JAURLARITZAK LAGATAKOAK
Donostia	Zurriola I	Igeldo I
	Edos	Gueteria II
	Zulu 82	
	Uretako motorrak (3)	
Hondarribia	Hondar Primera	Guadalupeko Ama
	Olearso	Aldabe
	Higer	
Pasaia	Uretako motorra	Mendiola
Zarautz - Getaria	Zarautz I	Arriluce II
	Hondarribia II	
	Uretako motorrak (2)	



---

# PREBENTZIO-, SOROSPEN- ETA SALBAMENDU-ZERBITZUA HONDARTZETAN

---

*Babesa Gipuzkoako hondartzetan.*

...

16 Gurutze Gorriak hondartzetan egiten duen lanak hainbat jardun-ildo hartzen ditu barnean. Alde batetik, arriskuan dauden pertsonak salbatu eta sorostea, eta osasun-laguntza eskaintzea hondartzan bertan edo botikinean, eta/edo osasun-zentroetara eramatea. Bestetik, prebentzioa hartzen du oinarriztat istripuak edo osasunerako arriskutsuak diren jokabideak saihesteko bide gisa.

Zerbitzu horrek, era berean, gizarte-laguntza osagarria eskaintzen du hondartzetan, mugigarritasun-arazoak dituzten pertsonen hondartzarako sarbidea eta bainatzeko auke-

ra erraztuz, lagundutako bainuaren eta makulu anfibioen bitartez.

2015ean gutxi gorabehera 8.500 osasun-laguntza eta erreskate egin ziren Gipuzkoako hondartzetan. Laguntza gehienak ebaki eta zaurietarako (3.633) eta traumatismo itxietarako (1.093) izan ziren, ondoren animalien ziztadak, adibidez xabiroiarenak (1.129), intsektuenak (545) eta anemonenak (365). Azpimarratzeko datu gisa, 2015eko udako denboraldian egindako 258 erreskateak daude, aurreko urtean egindako 144 erreskateekin alderatuta.




Hondartzetan egindako gizarte-laguntza osagarriko esku-hartzeak guztira 1.270 izan dira. Lagundutako 661 bainu eskaini dira eta makulu anfibioak 526 aldiz erabili dira.

Gainera, berriro azpimarratu beharra dago galdutako pertsonen kopurua handitu egin dela: 335 pertsona galdu ziren 335 pertsona galdu ziren 2015ean, 2014an galdutako 263 pertsonekin konparatuz.


Zerbitzu horren helburua, jende asko bertaratzen denez uda-garaian gertatzen diren arrisku-egoerak prebenitzea da. Horrela, hondartza horietara eta inguru hurbilera joaten diren erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jartzen duten egoerak eraginkortasunez egonkortzeko sistema bat ezartzen da, hiru funtsezko zutaberen bitartez: prebentzioa, erreskatea eta lehen laguntzak.

## GERTAKARI MOTAK

## OSASUN-LAGUNTZAK 8.170



## ERRESKATEAK 258



**8.428** GUZTIRA 100 %



# GIZARTE ESKU-HARTZEA

*Ahulezia-egoera larrian dauden pertsoneri laguntzea.*

...

## ADINEKOEKIN ESKU HARTZEA

Hainbat lan-ildo garatzen ditugu adinekoen arretari dagokionez, eta horien artean pertsonak bere ohiko ingurunean jarraitzea ahalbidetzen duten zerbitzuen aldeko apustu erabakigarria dago, adinekoen autonomia pertsonala eta parte-hartze komunitarioa indartuz.

**Etxeko Laguntza Osagarria**, beren bizitzan autonomia eta independentzia baliatzeko gaitasuna murriztuta duten kolektiboen bizi-kalitate hobearen aldeko jardunak ahalbidetu nahi dituen proiektua da. Helburu nagusia ohiko bizilekuan autonomia pertsonala eta integrazioa erraztea da, elkarbizitza sustatuz eta isolamendua eta bakardadea saihestuz.

### Zahartze osasungarria:

Gurutze Gorriak zahartze aktiboa eta osasungarria sustatzera bideratutako aisia- eta astialdi-jardueren garapena indartzen du. Taldean egiten da, eta horrek errazten du erabiltzaileek hainbat jardueretan parte hartu ahal izatea, norbanakoaren sare soziala indartuz.

## URRAKORTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONAK

Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsona eta familiei laguntzeko programa hau 2012tik aurrera indartu egin zen Gurutze Gorriak krisiaren eraginpean dauden familiei arreta eskaintzeko abian jarria zuen deiaaren ondorioz. 2015ean **9.324 laguni eman zaie arreta** honako programa hauen barruan:

**Gizarte-laguntza ematea kalteberatasun-egoeratan:** Laguntza puntualak, adibidez arropa banatzea, elikagaiak banatzea eta abar.

**“Orain inoiz baino gehiago” kanpainaren prestazioak:** Gizarte-larrialdiko loteak banatzen ditugu eta diru-sarrerara txikiak dituzten familien hornidura-gastuak (argia, ura, gasa) estaltzen ditugu. “energia-pobrezia” eta abar.

**Elikagaien banaketa:** Nekazaritza Bermerako Espainiako Funtsak (FEGA) Espainiako Gurutze Gorria izendatu du banaketa-erakunde elkartu gisa, Pertsona Behartsuenentzako Laguntza Europarrerako Funtsaren 2015eko elikagai-laguntzarako programaren esparruan (PO-FEAD 2014-2020).



## GIZARTE-ZAILTASUNEAN DAUDEN HAURRAK

Gizarte-zailtasunean dauden haurren planaren helburua haurren bizi-kalitatea hobetzea da, gizartea haurren eskubideen errekonozimendurako mobilizatuz, ongizate eta asetasun mailarik handiena lortzeko aukera ematen dien garapena bultzatzeko.

**CRONO:** Gizarte- eta hezkuntza-mailako esku-hartzea nerabeekin. Egoitza Harreraren egituraren barnean hartuta dagoen baliabide bat da, eta kalitatezko arreta eskaintzea du helburu, haurren eta nerabeen garapen integrala sustatzeko eta euren eskubideak eta betebeharrak bete eta baliatu ahal izateko.

**Emantzipazio-etxebizitzak eta akonpainamendua:** Gizarte-zailtasuneko egoeran dauden gazteei zuzendutako proiektuak dira, euren gizarteratzeko ibilbide indibidualen diseinu, gauzatze eta jarraipenean laguntzen diegu, etxebizitza-sare baten eta hezkuntza-laguntzan espezializaturako talde tekniko eta boluntario baten bitartez.

**“Eskutik” adingabeentzako laguntza:** Foru Aldundiaren adingabeak babesteko zerbitzuak arreta ematen dien haurrei dago zuzenduta programa hori. Helburua da adingabearen gizarteratzea bultzatzea boluntarioen laguntzaren bitartez, hezkuntza-lanaren osagarri gisa.

**“Txiki-Txoko” migrazio-prozesuetan murgilduta dauden emakumeen kontziliazioa:** bakarrik, familia-babeseko sarerik gabe eta haur txikiekin dauden emakumeentzako kontziliazio- eta laguntza-zerbitzu bat da.

2015ean Donostiako Hiriak proiektu hau kudeatzen duten boluntarioen lan solidarioa saritu zuen, Udalak ematen duen Hiritar Merezimenduaren Dominarekin.

## IMMIGRAZIOA ETA ERREFUXIATUAK

Gure probintziara iristen diren etorkinei eta errefuxiatuei zuzendutako hainbat proiektu kudeatzen ditugu.

**Lehen Harrera eta gizarteratzea:** Lehen Harrera eta Gizarteratze Programaren helburu nagusia kalteberatasun-egoeran eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen harrera osoa egitea eta gizarteratzeko prozesuan laguntzea da.

**Gizarte-laguntza helduentzat:** Baliabide komunitarioetara heltzeko muga gehienak dituen kolektiboaren gizarteratzea sustatzen dugu. Horrela, laguntzen duen pertsonak bide-eratzaila, zubi eta bitartekari gisa dihardu egoeren eta baliabideen artean, eta ibilbideak diseinatzeko eta gauzatzen laguntzen du.





**Informazioa eta aholkularitza errefuxiatuentzat:** Asiloa eskatu nahi dutenei harrera egiten zaie eta kasua aurkezteko lehen faseetan eta kudeaketan laguntzen zaie, izapidetzeko onartzen dituzten ala ez jakin arte. Onartzen dituztenean zentro espezifiko baterantz bideratzen ditugu, eta ez badituzte onartzen bidezko den orientabidea ematen zaie.

**“AholkuSarea” lege-laguntza eta laguntza juridikoko zerbitzua:** Atzeritartasun Zuzenbidean espezializatutako aholkularitza juridikoko zerbitzua. Etorकिन kolektiboaren premiak esaltzen saiatzen da arreta osoaren ikuspegitik, Atzeritartasun Zuzenbideari lotuta dauden eskaera guztiei arreta eskainiz.

**Egonaldi Ertaineko Zentroak:** Hamaika etxebizitza ditugu bakarrik dauden pertsonentzat, familientzat eta/edo gizarte-bazterkeriako erdi-mailan dauden espetxeratuentzat. Parte hartzen duten pertsonen oinarritzko premiak duintasunez estali nahi dira, eta pertsona horien autonomia errazten duen eta pixkanaka gizarteratzea ahalbidetzen duen ibilbide bat diseinatu nahi da.

**Algara eguneko zentroa:** Gizarteratze-prozesuak babesten eta errazten ditugu (gizarte-premien estaldurari eusteko laguntza, ongizate biopsikozoziala bultzatzea, ohitura osasungarrien sustapena, prestakuntza, aisia eta laguntza psikoemotionala) gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzat, autonomia pertsonaleko mailarik handiena sustatuz.

**Kultura arteko bitartekaritza:** Profesionalei laguntzea kultura-aniztasuneko testuingurutan, ekintza komunitarioko programetan, harrera, egokitzapen, sustapen eta gizarteratze planean.

## DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK

Desgaitasunen bat duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko dihardugu lanean. Norbanakoaren autonomia pertsonala sustatzera, mantentzera edo lehengoratzera bideratzen dugu ahalegina, ohiko bizilekuan jarrai dezan errazteko, gizarte-deserrotze eta -desintegrazioko egoerak saihestuz honako zerbitzu-sorta honen bitartez:

**Desgaitasuna duten pertsonen laguntza hondartzetan:** Lagundutako bainua, aulki anfibioen eta abarren erabileran adituak diren pertsonekin.

**Etxe laguntza osagarria:** Laguntza indibiduala, espezializatua, pertsonaren ingurunean.

**Aisia eta astialdia:** Aisia- eta astialdi-jarduerak; txangoak, festak eta abar.

**Laguntza-produktuak:** Laguntza teknikoaren mailegu-zerbitzua (gurpil-aulkiak, eskorgak, makuluak eta abar).

**Garraio egokitua:** Garraio diskrezionaleko zerbitzua da, desgaitasun fisiko edo psikikoa duten pertsonak garraiatzeko prestatuta dauden ibilgailuekin egiten dena. Ohiko garraio publikoa erabiltzeko eragozpenak edo oztopoak ditzutenentzat prestatua.

## GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONAK

**Errehabilitazio psikosozialeko zentroa:** Erabiltzaileari eta bere familiari kalitatezko eguneko arreta espezializatua eskaintzen diegu, bakoitzaren benetako beharrak kontuan izanik, eta askotariko zerbitzuak eta programak ditugu horretarako.

**Tutoretzapeko etxebizitzak:** Familiarekiko baliabide alternatiboa da, gune propioa, beren bizitza-ibilbidea garatu ahal izan dezaten.

## KARTZELA ETA BIRGIZARATERATZEA

**Espetxea eta Birsozializazioa:** Askatasun-gabetu kalteberenak diren pertsonen sustapenean oinarritzen da proiektua. Haien gaitasunak indartzea da helburua, eta horretarako prestakuntzan, hezkuntzan eta arlo juridikoan egindako ekintzei laguntza eskaintzen zaie.

**Gizartearentzat lan egitea:** Hainbat jarduera eskaintzen dizkiegu kartzela zigorra duten pertsonen, komunitatearen mesedetan lan egiteko jardunaldien bitartez, eta funtzio berrezitzailea du.

GIZARTE ESKU-HARTZEA	
<b>Adineko pertsonak</b>	<b>296</b>
Etxeko laguntza osagarria	50
Zahartze osasungarria	246
<b>Urrakortasun egoeran dauden pertsonak</b>	<b>9.324</b>
Gizarte-laguntza ematea kalteberatasun-egoeratan	63
"Orain inoiz baino gehiago" kanpainaren prestazioak:	2.636
Elikagaien banaketa	6.625
<b>Gizarte-zailtasunean dauden haurrak</b>	<b>315</b>
CRONO	53
Emantzipazio-etxebizitzak	59
Akonpainamendua	116
"Eskutik" adingabeentzako laguntza	26
Migrazio-prozesuetan murgilduta dauden emakumeen kontziliazioa	61
<b>Etorkinak eta errefuxiatuak</b>	<b>1.734</b>
Lehen Harrera eta gizarteratzea	585
Gizarte-laguntza helduentzat	33
Informazioa eta aholkularitza errefuxiatuentzat	21
Lege-laguntza eta laguntza juridikoko zerbitzua	640
Egonaldi Ertaineko Zentroak	125
Algara eguneko zentroa	19
Kultura arteko bitartekaritza	311
<b>Desgaitasunen bat duten pertsonak</b>	<b>1.023</b>
Desgaitasuna duten pertsonen laguntza hondartzetan	143
Etxeko laguntza osagarria	30
Aisia eta astialdia	50
Laguntza-produktuak	150
Garraioa ibilgailu egokietan	650
<b>Gaixotasun mentala duten pertsonak</b>	<b>32</b>
Errehabilitazio psikosozialeko zentroa	22
Tutoretzapeko etxebizitzak	10
<b>Kartzela eta birgizarteratzea</b>	<b>195</b>
Espetxea eta Birsozializazioa	146
Komunitatearen mesedetan lan egitea	49
<b>GUZTIRA</b>	<b>12.919</b>



# ENPLEGUA

*Pertsona kalteberen gizarteratze eta laneratzearen alde lan egiten.*

...

## ENPLEGU-PLANA

Kolektibo kalteberentzako enplegu-planaren bitartez Gipuzkoan gizarte- eta lan-laguntzarako programak garatzen ditugu, erakundearen konpromisoari erantzunez, hau da, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen laguntzea gizarteratzeko eta laneratze bidea eraikitzen, autonomia lortzeko beharrezko tresnak eskainiz.

Prestakuntza edo lanbide-prestakuntza eskasa, lan-esperientziarik eza edo eskasa, edota enplegua bilatzeko mekanismoen desinformazioa direla medio lan-merkatutik urrun dauden pertsonen zuzenduta dago programa.

## Proiektuak:

### > ENPLEGURAKO INFORMAZIO- ETA ORIENTAZIO-NEURRIAK

Zerbitzu horrek eskaintzen du enplegu- eta prestakuntza-baliabideei buruzko informazioa eta orientazioa, CV eta lanerako elkarrizketak egiteko aholkularitza, baita enplegua bilatzeko prozesurako laguntza ere, gaitasunak hobetuz eta informazioa zabalduz.

### > IBILBIDE OSOAK GIZARTE-ZAILTASUNEAN DAUDEN ETORKINEKIN

Pertsonekin epe labur eta ertainean jardun-estrategia bat ezartzen duen proiektua da, baita egin beharreko

## Helburuak:

- > Esku-hartzerako esparru bat eskaintzea, gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuak ezartzeko, arazo espezifikoak eta beren adina, sexua eta kulturatik eratorritako diskriminazio-elementuak dituzten emakume eta gizonen lanbide-kualifikazioa, enplegarritasuna eta gizarteratze eta laneratzea hobetzeko.
- > Pertsonen enplegarritasuna sustatu eta indartzea, gizarte-trebetasunen eta lanbide-kompetentzien eskuratzeko bitartez, eta pertsonak indartzea ingurune komunitarioan parte hartzeko, lehiatzeko eta lankidetzan jarduteko, eta ondorioz, gizarteratze eta laneratze ona lortzeko.




ekintzen ibilbide bat ere, hiru jardun-neurriren bitartez: banakako eta taldeko orientazioa, konpetentzia pertsonaletarako prestakuntza, eta lan-bitartekaritza.

> **EMAKUMEENTZAKO LAN-IBILBIDEAK EGE-INCORPORA PROGRAMAREN BITARTEZ**

Gizarte-zailtasuneko egoeran dauden emakumeen laneratzea erraztera dago bideratuta, beren gizarte-erantzukizun korporatiboa kolektibo kalteberen laneratzea erraztuz garatu nahi duten enpresekin zuzeneko lankidetzan jardunez.

> **ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO TAILERRAK EMAKUMEENTZAT**

Trebetasun eta konpetentzia pertsonalak indartzera bideratutako proiektua da, emakumeen enplegagarritasuna hobetzeko helburua duena, batez ere genero-indarkeria jasan duten emakumeena, taldeko esku-hartzearen bitartez, eta laguntza- eta ikaskuntza-sareak sortuz taldeko gainerakoen bizipenen bitartez.



**ENPLEGU-PLANAREN JARDUEREI BURUZKO DATUEN LABURPENA**

**949** pertsona enplegurako informazio- eta orientazio-neurrietan

**394** parte-hartzaile gizarte-zailtasunean dauden etorkinekin egindako ibilbide osoetan

**89** parte-hartzaile lan-ibilbideetan Incorpora EGEaren bitartez

**16** emakumek parte hartu zuten enplegagarritasuna hobetzeko tailerretan

**49,5 %**eko ratioa gizarteratzeko ibilbide-proiektuetan

**475** lankidetzan enpresekin



# PRESTAKUNTZA

*Giza eta lan prestakuntza.*

....

Prestakuntza funtsezko eta zeharkako arloa da Gurutze Gorriari, prestakuntza-sailak, alde batetik, erakunde-ko boluntarioak eta langileak prestatu nahi dituelako beren esku-hartzeen kalitatea hobetuko duten gaitasunak eskura ditzaten, eta bestetik, erakundearen helburuak lortu nahi direlako zabalkunde soziosanitarioko prestakuntza-ekin-tzen bitartez, erabiltzaileen prestakuntzaren bitartez, haien egoera hobetzeko eta gizartean eta lan-arloan baztertuta ez geratzeko, eta abar. Hori guztia prestakuntza-metodologia aktiboa, motibatzailea, parte-hartzailea eta praktikoa baliatuz.

Gure prestakuntza definitzen duten **printzipioak** honako hauek dira:

- > Prestakuntza taldean egiten da: taldea ikaskuntzazagune gisa hartzen da.
- > Ezagutzen bilaketa bultzatzen du, ikaskuntzan aurrerapen kualitatiboa sartzeko.
- > Praktikatik eta ekintzatik bideratzen den ikaskuntza.
- > Ikaskuntzaren autoebaluazioa.
- > Pertsonaren eta gaitasunen garapena bultzatzea.
- > AENOR eta IQNETek emandako Kalitate Ziurtagiriak bermatutako prestakuntza, Prestakuntzarako Kalitate Sistemari lotuta, UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren eta ISO 14001 kalitate-ziurtagiriaren arabera, honela zehazten dena: Gurutze Gorriaren prestakuntzaren diseinua, kudeaketa eta irakaskuntza.

Gipuzkoako Prestakuntza Sailak, Gurutze Gorriaren Prestakuntza Planari jarraiki, bere prestakuntza-ekintzak **lau ARLOREN** inguruan egituratzen ditu:

## Esku-hartzerako prestakuntza:

- > **Gizarte-prestakuntza:** gizartean esku-hartzeko proiektuetan (adinekoak, haurrak, gazteak, atzerritarrak, eta abar) parte hartzen duten boluntarioak gaitzea.





- > **Prestakuntza sorospentarako eta larrialdietarako:** boluntarioei lehen laguntzetan eta sorospenean, hondamendi eta larrialdietako esku-hartzean jarduteko jarraibideak ematea eta horietan trebatzea, baita laguntza psikologikoa emateko ere.
- > **Osasun-arloko prestakuntza:** boluntarioak osasun-arloko prebentzioan eta hezkuntzan prestatzea.
- > **Gazteen Gurutze Gorriaren prestakuntza:** Gazteen Gurutze Gorriko boluntarioak beren jarduerak egiteko gaitzea.
- > **Nazioarteko Lankidetzarako prestakuntza:** Nazioarteko Lankidetzarako boluntarioak garapenerako hezkuntzari lotutako gaietan gaitzea, "Sentsibilizazio Agenteen" prestakuntza-ekintza baten bitartez.

### Gizarteratzeko eta parte-hartzerako prestakuntza:

Prestakuntza honek pertsonen gizarteratzea eta gizartean parte-hartzea bultzatu eta enplegarritasuna hobetu nahi du. Prestakuntza-ekintza asko egiten dira, hezkun-

tza ez-formalari lotuta daudenak (ohitura osasungarriak sustatzea, gaitasun pertsonalak eta sozialak hobetzea, eta abar) nahiz enplegurako prestatzeko ekintzak (lanaren aurreko prestakuntza, lanbide-gaitasuna, gizarteratzea eta laneratzea, eta abar).

### Oro har jendeari zuzendutako prestakuntza:

- > Interes sanitarioko ikastaroak: lehen laguntzak, oinarriko bizi-euskarria eta KDE, uretako sorospena, laguntza psikologikoa.
- > Gizarte-intereseko ikastaroak: mendeko pertsonak, adinekoak eta abar.
- > Enpresa publiko eta pribatuentzako prestakuntza: prestakuntza-eskaintza zabala ikastetxe, institutu, erakunde publiko eta enpresa pribatuentzat.



## Erakunde-garapenerako prestakuntza:

Prestakuntza honekin Gurutze Gorriko pertsonen gaikuntza eta prestakuntza hobetu nahi da, erakundearen ideologia eta metodologia hedatzeko eta zereginak eta eginkizunak hobeto egiteko.

## PROFESIONALITASUN- -ZIURTAGIRIAK \_\_\_\_\_

2015. urtean, Gipuzkoan, LANBIDEK EGIAZTATUTAKO HIRU ZENTRO daude, hainbat prestakuntza-espezialitate-tan:

ZENTROA	EGIAZTATUTAKO ESPEZIALITATEAK
UROLA GARAIA	SANT0208. Osasun-garraioa.
	SSCS0208. Mendekoentzako arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan.
	SSCS0108. Pertsonen arreta soziosanitarioa etxean.
GOIERRI	SANT0108. Biktima ugarirentzako eta hondamendietarako arreta sanitarioa.
	SANT0208. Osasun-garraioa.
	SSCE0110. Enplegurako lanbide-heziketaren irakaskuntza.
	SSCG0111. Telelaguntzako deien kudeaketa.
	SSCM0108. Eraikin eta lokaletako zoru eta altzarien garbiketa.
	SSCS0108. Pertsonen arreta soziosanitarioa etxean.
	SSCS0208. Mendekoentzako arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan.
	SANC01. Arreta espezializatua Alzheimer dutenei.
	SANC10. Osasun-zaindaria.
	SANC3007. Erizaintzako laguntzailea geriatrian.
	SANC4007. Osasun mentaleko eta toxikomanietako erizaintzako laguntzailea.
	TOLOSA
SANC10. Osasun-zaindaria.	
SANC3007. Erizaintzako laguntzailea geriatrian.	
SANC4007. Osasun mentaleko eta toxikomanietako erizaintzako laguntzailea.	
SANT0108. Biktima ugarirentzako eta hondamendietarako arreta sanitarioa.	

## PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIEN PRESTAKUNTZA



Mendekoentzako arreta soziosanitariao gizarte-erakundeetan

**27** ikasle

Pertsonen arreta soziosanitariao etxean

**18** ikasle

Eraikin eta lokaletako zoru eta altzarien garbiketa

**16** ikasle

Mendekoentzako gizarte-animazioa gizarte-erakundeetan

**14** ikasle

27

	Ikastaroa	Ikasleak		GUZTIRA
		Emakumeak	Gizonak	
Esku-hartzerako prestakuntza	22	96	190	286
Inklusio eta gizarte partaidetzarako prestakuntza	61	343	225	568
Biztanle guztientzako prestakuntza	237	1.042	1.947	2.989
Garapen instituzionalerako prestakuntza	43	285	180	465
<b>Guztira</b>				<b>4.308</b>



# INGURUMENA

*Ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa.*

....

Ingurumen Planaren barruan hobekuntza sozioambientalera bideratutako hainbat proiektu daude bilduta. Horietako batzuk zuzenean Gizarte Esku-hartzean egikaritzen dira, gure esku-hartzearen xede diren pertsonen kompetentzia pertsonalak lantzeko tresna gisa.

## Ingurumen-kalitatea

Ingurumen-kaliterako proiektuaren bitartez, instalazioek edukiontzi bereziak eta ingurumen-kartelak eduki ditzaten arduratzeaz gain, ingurumen-inpaktuko adierazleak lantzen ditugu gure jarduerak ingurunean duten inpaktua murrizteko.

## Ingurumen-sentsibilizazioa

Ohikoa denez, ingurumenaren alorreko hainbat mundu-egun eta mundu-aste interesgarri ospatzen ditugu. Aurten, Uraren Mundu Egunean eta Birziklatzearen Astean parte hartu dugu.

Hona hemen aurten egin diren jarduerak:

- > Uraren problematikari buruz sentsibilizatzea eta jendeari oro har zuzendutako aurrezteko aholkuak ematea.
- > #selfiereciclaje kanpaina, jendeari egiten dituen eguneroko birziklatze-ekintzak eta birziklatze-ekimenak sare sozialetan partekatze eskatuz.

Egun horietan parte hartzearen helburua zera da, herritarrek baliabide naturalen aurrezkiari eta kontserbazioari lotutako erantzukizun indibidual eta kolektiboari buruz kontzientziatzea, Klima Aldaketa moteltzeko xedez; arreta berezia eskainiz baliabide hidrikoen erabilera eta kudeake-

tari, planetako toki askotan gertatzen ari den lehorte eta desertifikazioari, edota guk sortzen ditugun hondakinek sortzen duten arazoari.

## Baratze Ekosozialak

Baratze ekosozialen proiektua gizarte esku-hartzeko planetik egikaritzen da Tolosa eta Donostiako udalerrietan. Proiektu horrek hainbat helburu betetzen ditu. Alde batetik, pertsona kalteberen elikadura-premiei arreta eskaintzen zaie, ingurumenari lotutako jokabideak ere sustatzen dira (laboreak ekologikoak direlako), eta gainera, gizarte-arloko alderdi bat ere badu, kolektibo kalteberen autoestimua eta autonomia handitzen dituelako.

## Ingurumena Zaintzea kostaldeetan

Surfrider elkartearekin eta Gurutze Gorriaren gizarteratze-proiektuetan parte hartzen dutenekin batera ingurumena zaintzen da kostaldeetan, zein egoeratan dauden jakiteko. Zaintza horren helburua zera da, itsasoko zaborraren ugaritasunari, pisuari eta izaerari buruzko informazioa bilatzea eta informazio horri balioa ematea.







# GAZTEEN GURUTZE GORRIA

*Haur eta gazteentzako jardun-programak, hezkuntzaren ikuspuntutik.*

...

Gazteen Gurutze Gorria (GGG) 8 eta 30 urte bitarteko haur eta gazteez osatutako Gurutze Gorriko gazteen atala da, eta bere ekintza nagusia haur eta gazteei dago zuzenduta, baita haien agente sozializatzailereri ere, euren garapen osoa eta autonomia pertsonala sustatuz eta euren inguru hurbi-lean ere jardunez.

2015ean Gazteen Gurutze Gorriaren Hauteskunde Orokorrak egin ziren; prozesu parte-hartzailea izan zen, eta GGG osatzen dutenek beren gobernu-organismoak hautatzeko eta hurrengo 4 urteetarako lan-ildoak erabakitze aukera izan zuten. Prozesu horren ondorioz gobernu-organoen % 100 berritu zen, hautagaiei zuzeneko botoa emanez.

## ESKU-HARTZEA

### Eskola Arrakastaren Sustapena

Eskola Arrakastaren Sustapena izeneko proiektuaren bitartez pobrezia eta gabezia materialeko arriskuan dauden familietako 3 eta 16 urte bitarteko haurrei eskola-laguntza ematen zaie, baita familiei laguntzeko zerbitzua eta eskolatzeko-prozesuari lotutako laguntza ekonomikoak ere.

Gizarte-zailtasuneko egoeran dauden haurren eskola-arrakasta handitzen laguntzea da helburua, hura baldintzatzen duten pertsona-, familia- eta gizarte-izaerako arrisku-faktoreak eta babes bereziki zainduz.

Honako batzar hauetan egiten da: Irun, Hondarribia eta Donostia.

### Eskola Arrakastaren Sustapena

58 ibilbide individual

Eskola-laguntzako **12.871** esku-hartze

**5.726** merienda

**2.961** osasun-sustapen

**140** aisialdiko jarduera

Eskola-materialaren **109** emate

### Hezkuntza-jostailua

Proiektuaren helburua gizarte-zailtasuneko egoeran dauden haur eta gazteen bizi-kalitatea hobetzea da, eta jolasaren bitartez adingabeen garapen pertsonaleko trebetasunak sustatzea, eta horretarako bi ekintza garatzen dira;

- > Sentsibilizazioa, urte osoan egiten dena (jolas-tailerak, oroitzapenezko egunak, kaleko jarduerak, pres-takuntza-jardunaldiak eta abar).
- > Jostailu berriak biltzeko kanpaina. Kanpaina hori gabonetan egiten da, eta bere helburua zailtasun ekonomikoak dituzten familietako haurrei jostailuak ematea da.

### Hezkuntza-jostailua

7 sentsibilizazio

**2.820** jostailu-emate

**1.410** haurrei banatuta

## CiberCaixas Ospitalizatutako Haurtzaroaren proiektua

La Caixak eta Espainiako Gurutze Gorriak egindako hitzarmenaren ondorioz, Gazteen Gurutze Gorria CiberCaixas ospitalizatutako haurrei zuzenduriko programa garatzen ari da Zumarragako ospitalean.

Ospitaleratuta dauden pertsonen kolektiboari zuzendutako esku-hartzeen proiektu bat da, zehazki ospitalean bertan dagoen La Caixaren Zibergelaren eremuan. Jolas- eta atsedeen-jarduerak, berez, ospitaleratuta dauden pertsonen, haien familien eta adiskideen tratamendu- eta ospitaleratze-prozesua eramangarriagoa izatea ahalbidetzen duen terapia osagarria dira.

## PARTE-HARTZEA

### PINEO. Haur eta gazteen parte-hartzea

Beren ingurunean Gazteen Gurutze Gorriaren bitartez gizar-te-eraldakuntzako agente izan nahi duten 61 haur, nerabe eta gazteri jolas- eta hezkuntza-ibilbide bat eskaintzen diegu.

Hainbat jarduera egiten dira: jolasak, animazioa, kirol-jarduerak, tailerrak, hitzaldiak, eztabaidak, bideo-foruma, irteerak eta txangoak, eta abar.

Guztira 422 jarduera egin dira, eta aurten "Udalekua. #aisialdia balioekin" egin da.

## Erakundeko gazte boluntarioen parte-hartzea

Boluntario guztiak dinamizatzeko eta haien inplikazioa sustatzeko jarduerak eta topaketak antolatzen ditugu eta parte hartzen dugu, parte-hartzearen bitartez bakeari, berdintasunari eta errespetuari lotutako kultura bereganatzen eta sustatzen dutelako. 2015ean Gurutze Gorriaren hainbat topaketa eta forotan hartu dugu parte; Partatuz Topaketa, Trebatuz Topaketa, Ekin Topaketa, Lidergo Foroak eta Udako Eskola.

## Hiri Udalekuak

Uztailean Gazteen Gurutze Gorriaren lehen hiri-udalekuak egin ziren, Donostian. Hiri-udalekuen helburua zailtasun ekonomikoak dituzten familietako haurrek udan aisialdi-jardueretan parte hartzeko aukera izatea da.

Hainbat aisialdi-jarduera eta jarduera didaktiko egin ziren: eskulanak, jokoak, txangoak igerilekura eta hondartzara, aniztasun-tailerrak, besteak beste.

## SENTSIBILIZAZIOA

2015ean informazioko eta sentsibilizazioko 32 ekintza egin ziren, 1.709 pertsona sentsibilizatuz honako gai hauei dagokienez:

- Giza eskubideetan eta haurren eskubideetan oinarritutako hezkuntza.





- > Kulturen arteko hezkuntza. Aniztasuna, gure aukerarik onena.
- > Ingurumenari buruzko informazioa eta sentsibilizazioa.
- > Hezkuntza-jostailua.
- > GIB/HIESaren eta beste gaixotasun batzuen inguruko hezkuntza eta prebentzioa.
- > Genero-indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa.
- > Baterako hezkuntza eta hezkuntza ez-sexista.
- > ESIE (Larrialdietarako sentsibilizazio- eta informazio-taldeak).

## PRESTAKUNTZA

Gazteen Gurutze Gorriak kalitatezko esku-hartzearen aldeko apustua egiten du, eta horregatik, jardueren programazioan, egikaritzean eta ebaluazioan egunero esku hartzen duten boluntarioen hezkuntzan arreta berezia jartzen du.

Gazteen Gurutze Gorriaren Astialdiko Eskolak gazteen sektorea sustatzea du helburu, astialdian gizarte- eta hezkuntza-proiektuetan eta animazio-proiektuetan modu aktibo eta eraginkorrean esku hartzeko aukera ematen dieten eza-gutzak eta trebetasunak emanez, eta aldi berean esperientziak partekatzeko gune bat sortuz.

2015ean GGGren prestakuntza-ibilbidearen 5 prestakuntza espezifiko egin ziren, eta 54 boluntariok hartu zuten parte.

PROIEKTUA	Boluntarioak, gizonezkoak	Boluntarioak, emakumezkoak	PARTE-HARTZAILEAK
Gizarte-zailtasuneko egoeran dauden haurren eskola-arrakastaren sustapena	13	33	58
Ospitaleratutako haurren arreta. Cibercaixa	8	18	546
Hezkuntza-jostailua	45	62	1.956
Baterako hezkuntza eta hezkuntza ez-sexista	6	9	460
Genero-indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa	1	4	106
Giza eskubideetan eta haurren eskubideetan oinarritutako hezkuntza	1	4	48
Aniztasuna, gure aukerarik onena	6	8	149
Ingurumenari buruzko informazioa eta sentsibilizazioa	4	3	14
GIB/HIESaren eta beste gaixotasun batzuen inguruko hezkuntza eta prebentzioa	12	15	386
Pineo - Haur eta gazteen parte-hartzea	17	33	61
Aisia eta astialdia	27	41	20
ESIE (Larrialdietarako sentsibilizazio- eta informazio-taldeak)	1	6	0 * taldea ez zen aktibatu 2015ean



EMUESTA  
ENUESTA  
EN TU CASA...  
ZURE ETXEN...

**GARATU**  
berrikuntzerantz

8 urteko berrikuntzerantz

**GARATU**  
berrikuntzerantz

8 urteko berrikuntzerantz



# NAZIOARTEKO LANKIDETZA

*Konpromiso humanitarioaren kanpoko proiektzioa.*

...

## LAGUNTZA HUMANITARIOA \_\_\_\_\_

- > **LURRIKARA NEPALEN.** Hondamendiak eraginpean hartutako jendearen saneamendu-baldintzak lehengoratztea eta hobetzea. FINANTZIAZIOA: Aia, Eibar, Hondarribia, Urnieta eta Zumarragako udalak.
- > **ERREFUXIATUEN KRISIA EUROAPAN.** Gipuzkoan bildutako funtsak, errefuxiatuen krisira bideratuak. Era berean, Gipuzkoatik laguntza logistikorako bi ibilgailu bidali dira Pireoko portura, Espainiako Gurutze Gorriaren Osasun Larrialdiei Erantzuteko Unitatearen dispositiboaren barruan. FINANTZIAZIOA: partikularren emateak.

- > **Errefuxiatu Sahararren nutrizio-egoeraren hobekuntza (SAHARA).** FINANTZIAZIOA: Gurutze Gorriaren Lankidetzaren Funtsa.

## GARAPENERAKO LANKIDETZA \_\_\_\_\_

- > Laderas de Chillón Giza Kokalekuko (PERU) 200 emakumeren autonomia fisiko eta ekonomikoaren hobekuntza. FINANTZIAZIOA: Oñatiko Udala.
- > Hondamendi naturalen aurrean herritar kalteberenen garapen ekonomiko eta sozialeko baldintzen hobekuntza Masbaten (FILIPINAK). FINANTZIAZIOA: Gurutze Gorriaren Lankidetzaren Funtsa eta Eibarko udala.
- > Kilimanjaroko eskualdeko (TANZANIA) 1.200 nekazari txikiren elikadura-burujabetzako baldintzak hobetzea eta nekazaritza-garapen jasangarria indartzea. FINANTZIAZIOA: Gurutze Gorriaren Lankidetzaren Funtsa.
- > Gishari, Nyagigozi, Gjeta eta Rugaramako sektoreetako (RUANDA) elikadura-segurtasuneko eta produkzio-garapeneko baldintzen hobekuntza. FINANTZIAZIOA: Gurutze Gorriaren Lankidetzaren Funtsa.
- > Palestinako biztanleen bizi-baldintzak hobetzea eta giza garapena sustatzea, euren gaitasun psikosozialak indartzearen bitartez, (PALESTINA). FINANTZIAZIOA: Gurutze Gorriaren Lankidetzaren Funtsa.





## GARAPENERAKO HEZKUNTZA \_\_\_\_\_

- > **“Gutunak Filipinetatik” ERAKUSKETA, GIPUZKOAKO ARGAZKILARI-ELKARTEAREN lankidetzarekin.** Tifoida igaro ondoren herrialdeak jasandako hondamendiaren ondorioak erakusten ditu erakusketak, baita eraginpean hartutako biztanleen egoera eta hondamendiaren osteko errekupeazioa ere, eta epe ertain eta luzera egindako bizibideak berreskuratzeko proiektuak. Hori guztia, Gurutze Gorriak bertan egikaritutako proiektuei lotutako argazkien eta beste material batzuen bitartez. Martxoaren 24tik 28ra bitartean.
- > **Laguntza Humanitarioari buruzko ERAKUSKETA, DONOSTIA 2016ren eta SAREGINEZ sarearen lankidetzarekin.** Erakusketa honek Gurutze Gorriaren larrialdietarako laguntza humanitarioko materialak eta produktuak erakusten ditu, eta Europan egun dagoen errefuxiatuen krisiari buruzko informazioa eskaintzen du. Abenduaren 10a.

## MUNDU EGUNEN OSPAKIZUNA \_\_\_\_\_

2015ean honako egun hauek hartu ditugu oinarritzat;

- > **Ekainaren 20a, Errefuxiatuaren Eguna.** Errefuxiatuek mundu osoan bizi duten egoerari buruzko informazioa eta prestakuntza eskaintzen dugu.
- > **Abuztuaren 19a, Laguntza Humanitarioaren Eguna.** Gatazka-eremuetan laguntza humanitarioa ematen duten pertsonak babesteak duen garrantziaren berri ematen dugu.
- > **Abenduaren 10a, Giza Eskubideen Eguna.** Giza eskubideen eta egiten ditugun proiektuetan daukagun loturaren berri ematen dugu.



# BOLUNTARIOAK ETA LANGILEAK

*Gurutze Gorriaren indarra bere boluntarioetan datza.*

...

## BOLUNTARIOAK

Gure indarra gure boluntarioetan datza, komunitatearen onurarako jarduerak gurekin egiteko beren denbora lagatzea erabakitzen duten pertsoneri esker egin dezakegu egiten dugun guztia.



Boluntariotzaren eta Parte-hartzearen Planean boluntarioen kudeaketan bildutako jarduerak garatzen dira, eta horrela, erakundearen nahiz zerbitzua egiten dion gizartearen premia berriei erantzuna ematen diegu: boluntarioen sus-

tapen-jarduerak, erakartzeko kanpainak, inkorporazio- eta orientazio-ekintzak, jarraipena, koordinazioa eta parte-hartzea.

Hori guztia abiapuntutzat hartuz, boluntariotzari eta erakarpinari buruzko sentsibilizazio-jarduerak egiten dira, boluntario izateko interesa adierazten duten pertsoneri harrera egiten zaie, pertsona guztiek gure erakundearen toki egokia aurkitu ahal izan dezaten ahaleginduz, erakundeek boluntarioak aintzat hartzeko jarduerak egiten dira, eta abar.




## GIPUZKOAKO BOLUNTARIOAK



37

### BOLUNTARIOAREN SOSLAIA





## 2015ean egindako jarduerak

2015ean boluntarioria-erloak boluntarioen kudeaketa hobetzen jarraitu du. Hainbat boluntario-azokatan parte hartu dugu, boluntarioriazaren balioa eta garrantzia sustatzeko, gure erakundeak antolatu dituenetan nahiz beste erakunde batzuekin batera antolatutakoetan: Sareginez, tokiko eta eskualdeko administrazioak, EHU, Deustuko Unibertsitatea, Orona Fundazioa, eta abar.


Maiatzean, aurreko urteetan bezala, erakundeak ibilbiderik luzeena duten boluntarioei omenaldia egiteko ekitaldi bat egin zen. 10 urtetik gorako boluntarioei diploma bat eman zitzaizen esker ona adierazteko, eta erakundeak 25 urtetik gora jardun dutenei oroitzapenezko plaka bat eman zitzaizen.

Azaroaren 28an Euskadiko Gurutze Gorriaren Autonomia Erkidegoko II. Topaketan parte hartu genuen, eta bertan gaur egun dituen 13.470 boluntarioei omenaldia egin zitzaizen.


Abenduan, Euskadin gizarte-boluntarioriazari lotutako pertsonen egindako omenaldian parte hartu genuen, Iñigo Urkullu Lehendakaria izanik ekitaldiko buru.



### JARDUERA-ARLOAK



## LANTALDEA 2015



LANTALDEKO PERTSONA  
KOPURU OSOA 2015AN  
(hondartzeekin)


**132** **172** **40**

LANTALDEKO PERTSONA  
KOPURU OSOA 2015AN  
(hondartza gabe)

**104** **293** **189**


LANTALDEKO PERTSONA KOPURU OSOA  
2015AN PLAN ETA ZERBITZU BAKOITZEKO  
(hondartza gabe)

GUZ.	GIZONAK	EMAK.
85	55	30
148	40	108
6	1	5
14	3	11
35	5	30
5		5



LANTALDEKO PERTSONA KOPURU OSOA  
2015AN ASANBLADA BAKOITZEKO  
(hondartza gabe)

GUZ.	GIZONAK	EMAK.
16	12	4
13	7	6
26	8	18
4	2	2
9	5	4
14	4	10
2		2
17	6	11
14	8	6
15	10	5
4	2	2
4	4	
1	1	
3	1	2
22	6	16
2	2	
127	26	101





---

# TOKIKO GARAPENA

---

*Erakundea sendotzea, pertsonengandik gero eta hurbilago egoteko.*

...

## LURRALDE-DINAMIZAZIOA \_\_\_\_\_

Lurralde-lantaldeetan tokiko garapena bultzatzeko plangintzaren kultura sustatzea, gaitasunen eta beharrizanen diagnostikoaren bitartez, eta dauden errealitateetara egokitu-tako tokiko ekintzako planak definitzea.


- Ingurunea aztertzea eta tokiko ekintzak planifikatzera bideratutako ekintzak.

2015ean azterketa eta plangintzari buruzko 5 trebakuntza egin ziren, 32 parte-hartzaileekin, 2015-2019 aldirako tokiko eta eskualdeko ekintza-planak prestatzeko.

## ERAKUNDE MAILAKO SENDOTZEA\_\_

Batzarren gaitasunak sendotzea, inguruneko beharrezane eta Gurutze Gorriak Gipuzkoan dituen helburu estrategikoei behar bezala erantzuteko.

- Batzarren gaitasunak sendotzera bideratutako ekintzak, erantzun hobea emateko gai izan daitezten. 2015-2019 ekintza-planaren ezarpenari buruzko 3 jarraipen-bilera egin ziren.







# BALIABIDEAK

*Ekipamendu materialak jarduera gauzatzeko.*

....

## 2015-EKO BALIABIDE MATERIALAK

<b>Anbulantziak</b>	<b>32</b>
OBE-SVB (Oinarrizko Bizi Euskarria) ambulanziaz	26
BEA-SVA (Bizi Euskarri Aurreratua) ambulanziaz	6
<b>Ibilgailuak</b>	<b>8</b>
Garraio Egokitutako ibilgailuak	30
Osasun Postu Aurreratuen ibilgailuak eta ekipazioa	4
Ospitale mugikorra	1
Lur orotako ibilgailuak	19
Lur orotako ibilgailuak - mendiko taldeak	12
Itsasoko eta hondartzetako Salbamenduari laguntzeko Lur orotako ibilgailuak	7
<b>Itsasontziak</b>	<b>14</b>
AB maila	2
B maila	5
C maila aurreratua	2
C maila	5
<b>Erreskateko uretako motoak</b>	<b>12</b>
<b>Erreskateko quad-ak</b>	<b>5</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>125</b>



ANBULANTZIAK



IBILGAILUAK



GARRAIO EGOKITUTAKO IBILGAILUAK



OSASUN POSTU AURRERATUEN IBILGAILUAK ETA EKIPAZIOA



OSPITALE MUGIKORRA



LUR OROTAKO IBILGAILUAK

43



ITSASONTZIAK



ERRESKATEKO URETAKO MOTOAK



ERRESKATEKO QUAD-AK



---

# KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

---

*Zorroztasuna eta informazio gardentasuna Gurutze Gorriaren jarduera gizartera hurbiltzeko.*

...

Gipuzkoako Gurutze Gorriak, Erakundearen printzipioekin eta balioekin bat datorren komunikazio politikaren aldeko apustua egiten du. Komunikazioa bi norabidetan lantzen da: barne eta kanpo komunikazioa.

Gurutze Gorriaren jarduera kanpoko jendeari ezagutarazteko hainbat bide propio erabiltzen dira, [www.cruzrojagipuzkoa.com](http://www.cruzrojagipuzkoa.com) webgunea, eta hurrenez hurren 986 eta 2.259 jarraitzaile dituzten Facebook eta Twitter sare sozialetako soslaiak.

Era berean, harreman estua dugu komunikabideekin. 2015an 1.687 tarte izan ditugu komunikabideetan: 560 tarte prentsan, 577 komunikabide digitaletan, 415 tarte irradian, eta 135 agerraldi telebistan. 36 komunikatu eta prentsarako txosten bidali ditugu komunikabideetara, 2 agendako jakinarazpen eta 7 prentsaurreko antolatu dira. Hondartzetako sorospen zerbitzuaren aurkezpena, "Uda honetan maite ezazu zure burua" kanpaina eta jostailuen kanpainaren aurkezpena, besteak beste.

Hondartzetako komunikazioaren alorrean, bidalitako 100 prentsa oharrak eta hondartzen eta banderen egoerari buruzko informazioa emateko irratiz egindako 330 eta telebistan izandako 66 parte hartzeak azpimarratu behar dira. Guztira 655 agerraldi izan genituen komunikabideetan Gurutze Gorriak Gipuzkoako hondartzetan burutzen duen lana erakutsiz.

Gure eskerrona adierazi behar diegu Gipuzkoako Gurutze Gorriaren jardueraren hedapenean laguntzen jarraitzen duten komunikabideei.



[www.facebook.com/CruzRojaGipuzkoa](http://www.facebook.com/CruzRojaGipuzkoa)



[@CruzRojaGip](https://twitter.com/CruzRojaGip)





SOPORTE

BASICO

www.cruzroja.es

Gurutze

Gurutze



# FUNTSAK ESKURATZEA

*Elkartasuna zabaltzen laguntzen duten 17.696 bazkide Gipuzkoan.*

....

Gurutze Gorriari ekarpen altruistak egiten dizkieten lagunei esker, gure proiektuak finantza ditzakegu eta, aldi berean, erakundearen independentzia indartzen dugu. Gurutze Gorriaren loterien (Gabonetakoa eta apirilekoa) eta Urre Zozketaren txartelak erosten dituztenek eta bazkideek ere laguntzen digute Gurutze Gorriaren proiektuak gauzatzeko.

Azkenik, gipuzkoarron elkartasuna nabarmendu nahi dugu, azken urteotan bazkideen kopuruak gora egin duelako (6.046 bazkide gehiago azken 6 urteotan). Era berean, urteko batez besteko kuotak ere gora egin du: 2015an 110 euro (2014an baino % 4,7 gehiago).

46

Gaur egun, Gipuzkoako Gurutze Gorriak 17.696 bazkide ditu; horietatik 17.165 pertsonak dira eta 531 enpresak. Bazkidearen profilari dagokionez, gehiengoa emakumezkoa dela nabarmendu behar dugu. 17.696 bazkide horietatik 10.277 (% 59,8) emakumeak dira, eta 6.888 (% 40,2) gizonak.

## URREAREN ZOZKETA

Beste urte batez, maiatzean, ekainean eta uztailean Gurutze Gorriak Urrearen Zozketa jarri zuen martxan, Erakundearen jardueraren garapenerako finantzazio iturri ezinbesteko gisa. Aurten, txartelak dira Urre Zozketaren benetako bereizgarri. "Munduko zozketarik solidarioena" lelopean, gizarte osoarengana iritsi nahi dugu eta zozketaren helburua bera izango da, beti bezala, zozketaren oinarri: premia handiena dutenei laguntzea.

Gurutze Gorriak eta Urrearen Zozketak, gizartearen babes zabala dauka, hala nola, empresa eta erakunde ezberdinenak. Errealak eskainitako kolaborazioa oso garrantzitsua izan da guretzat, jokalaria eta talde teknikoaren laguntzak bultzada handia izan du Urrearen Zozketaren hedapenean.




BAZKIDE KOPURUA


**BAZKIDE KOP.**

9.554  
10.388  
11.650  
13.422  
14.169  
15.001  
15.975  
16.893  
17.696

2007  
2008  
2009  
2010  
2011  
2012  
2013  
2014  
2015



2015EKO BAZKIDIAK



**38,9 %**

Gizonak

**6.888** gizon

**58,1 %**

Emakumeak

**10.277** emakume

**3 %**

Enpresak

**531** enpresa

**GUZTIRA 17.696** gizon, emakume eta enpresa




# KUDEAKETA EKONOMIKOA

Gipuzkoako Gurutze Gorria zifratan.

....

GASTUAK JARDUERAREN ARABERA	%
Gazteriaren Gurutze Gorria	0,83%
Boluntariotza	0,80%
Gizarte Esku-Hartzea	41,75%
Sorospenak eta Larrialdiak	31,83%
Prestakuntza	4,99%
Kudeaketa eta Administrazioa	10,03%
Bestelakoak (Nazioarteko Lankidetzeta, Elkartasun Funtza eta Funtzen Sustapena eta besteak)	9,76%
<b>GUZTIRA</b>	<b>100%</b>



0,83 %

Gazteriaren Gurutze Gorria

0,80 %

Boluntariotza

41,75 %

Gizarte Esku-hartzea

31,83 %

Sorospenak eta Larrialdiak

4,99 %

Prestakuntza

10,03 %


Kudeaketa eta Administrazioa

9,76 %

Bestelakoak (nazioarteko lankidetzeta, elkartasun funtza eta funtzen sustapena eta besteak)

FINANTZAKETA ITURRIAK	%
Zerbitzuak eskaintzea	60,04%
Funtsak eskuratzea	21,49%
Diru-laguntzak eta dohantza pribatuak	16,31%
Kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	0,30%
Finantzakoak	0,35%
Kapital diru laguntzak eta ez ohikoak	1,51%
<b>GUZTIRA</b>	<b>100%</b>

<b>GUZTIRA</b>	<b>10.686.692,95</b>
----------------	----------------------

**60,04 %**

Zerbitzuak eskaintzea

**21,49 %**

Funtsak eskuratzea

**16,31 %**Diru-laguntzak eta dohantza  
pribatuak**0,30 %**Kudeaketako beste diru-sarrera  
batzuk**0,35 %**

Finantzakoak

**1,51 %**Kapital diru laguntzak  
eta ez ohikoak



# JARDUERA DATUAK

174.738 zerbitzu eginda 54.301 partaide edo erabiltzaileentzat 2015an.

....

Partaideak eta zerbitzuak 2015	Partaide erabiltzaileak	Zerbitzuak
<b>GIZARTE ESKU-HARTZEA</b>	<b>12.919</b>	<b>149.255</b>
Adineko pertsonak	296	1.956
Urrakortasun egoeran dauden pertsonak	9.324	3.295
Gizarte zailtasunean dauden haurrak	315	13.430
Pertsona etorkinak eta errefuxiatuak	1.734	15.420
Desgaitasunen bat duten pertsonak	1.023	104.877
Gaixotasun mentala duten pertsonak	32	2.871
Kartzela eta birgizarteratzea	195	7.406
<b>ENPLEGUA</b>	<b>1.282</b>	
<b>INGURUMENA</b>	<b>307</b>	
<b>PRESTAKUNTZA</b>	<b>4.308</b>	<b>363</b>
<b>GAZTEEN GURUTZE GORRIA</b>	<b>3.828</b>	<b>14.873</b>
<b>ITSAS SALBAMENDUA, SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK, HONDARTZAK</b>	<b>14.873</b>	<b>5.905</b>
Larrialdietan Berehalako Erantzuna emateko Taldeak eta bestelako larrialdiak	20	28
Zerbitzu prebentiboak	2.905	2.369
Hondartzetan prebentzio, sorospen eta salbamendua	9.732	1.254
Garraio sozio-sanitarioa	2.143	2.126
Itsasoko Salbamendua	73	128
<b>OSASUN PLANA</b>	<b>16.784</b>	<b>4.342</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>54.301</b>	<b>174.738</b>



# FINANTZAILE ETA LAGUNTZAILEAK



51

” Gurutze Gorriko kideok eskerrak eman nahi dizkiegu erakunde publikoei, enpresei, finantza entitateei eta fundazioei eman diguten laguntzazatik, haien ekarpenei esker, gure proiektuetako asko gauzatu ahal izan baititugu.

Eusko Jaurlaritza | Gipuzkoako Foru Aldundia | Donostiako Udala | Irungo Udala | Hondarribiko Udala | Errenteriako Udala | Lasarteko Udala | Andoaingo Udala | Tolosako Udala | Beasaingo Udala | Urretxuko Udala | Arrasateko Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Bergarako Udala | Eibarko Udala | Ermuako Udala | Elgoibarko Udala | Debako Udala | Mutrikuko Udala | Orioko Udala | Zarauzko Udala | Getariako Udala | Zumarragako Udala | Azkoitiko Udala | Idiazabalgo Udala | Olaberriako Udala | Lazkaoko Udala | Ataungo Udala | Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa | Lanbide | Sasemar | Laboral Kutxa | LaCaixa | Ecoembes | Pasaiko Portua

Enpresa pribatu, partikular, dohaintza emaile eta bazkide kolaboratzaile guztiak. **ESKERRIK ASKO** denei.



# KALITATE ZIURTAGIRIAK

Gurutze Gorrian kalitatea kudeatzeko oinarritzat hartzen den kalitate politika erakundearen misioa eta ikuspegiarekin lotuta dago.

Planetan, programetan eta proiektuetan kalitatea ezartzeko, kalitatearen arloko arauak eta sistemak ditugu euskarri; hala nola **ISO 9001** eta **EFQM**.

2015an, Espainian, gure probintzian eta herrietan ezarritako kalitate sistema guztiei eutsi diegu. Sistema horiei barneko eta kanpoko ikuskapenak egin dizkiegu. Kanpokoek erakunde independente bat arduratu da, **AENOR, Espainiako Normalizazio eta Ziurtapen Elkarte**a hain zuzen, eta emaitza ona jaso dugu.

## AENOREKO KALITATEZKO ZIURTAGIRIAK

- > Mugikortasun urria daukatenentzako garraio egokitua (talde-ibilgailua) Gipuzkoako probintziako eremuan. - ISO 9001:2008 ER -1727/2008
- > Gipuzkoako hondartzetan Prebentzio, Salbamendu eta Sorospen eta bainu lagunduko zerbitzua. - ISO 9001:2008 ER -0929/2009
- > Berezko prestakuntzaren diseinua, kudeaketa eta ikaraspena, presentaziala eta on-line, arautu gabeko, etengabeko, okupazio-prestakuntza, Espainiako Gurutze Gorriko helburu eta xedeei lotua dagoena. - ISO 9001:2008 ER -0385/2007

## EZARRITAKO BESTE KALITATE SISTEMAK

Ezarritako beste kalitate sistemak:

- > Boluntariotzaren kudeaketa - ISO 9001:2008
- > Enplegu-plana – ONGconcalidad
- > Jardunbide egokiak, emaileen itxaropenak, kudeaketa-osagaiak eta etengabeko hobekuntzak - ONG Benchmarking



ER-0929/2009



ER-1727/2008





**Gurutze Gorria**

Gipuzkoa